

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**EUSKARAREN ERABILERA GIZARTE ETA  
KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAN**

**Hitz gakoak: euskara, unibertsitatea, euskaldun, hizkuntza gutxitua**

**BOSKOTE TALDEA:**

KEIO URKIJO

AIMAR SANTAMARIA

AITOR REKALDE

MARKEL OREGI

OIER RAMOS

## **AURKIBIDEA**

1. Sarrera eta ikerketa taldearen aurkezpena	3. orr
2. Ikerketaren justifikazioa	4. orr
3. Marko teorikoa	5. orr
4. Ikerketaren testuingurua	9. orr
5. Helburuak	10. orr
6. Hipotesiak	11. orr
7. Planteamendu Metodologikoa	12. orr
8. Inkesta	16. orr
9. Bibliografia	17. orr

## **SARRERA ETA IKERKETA TALDEAREN AURKEZPENA**

Gu Keio, Markel, Oier, Aimar eta Aitorrek osatzen dugun ikerketa talde bat gara, batzuk Soziologia ikasten ari gara eta beste batzuk aldiz, Politika Zientziak. Batzuk Nafarroatik gatoz, beste batzuk Bizkaitik eta baten bat Gipuzkoatik, hau da, Euskal Herriko txoko ezberdinetatik. Eta Gizarte Ikerketa Kuantitatiboko irakasgaian batu gara ahalik eta ikerketa osatuena egiteko asmoz.

Gaur egungo egoera dela eta, ikasi dugu momentu bat edo bestean bizimodua aldatzeko egoerak gerta daitezkeela. Horren harira, burura etorri zitzaizkigun aldaketak izan ditzazkeen ikerketa gaiak. Kontuan izan behar dugu azken finean, hilabeteak etxean pasatzeak ez dituela bakarrik aldaketa ekonomikoak ekartzen, baizik eta sozialak eta bizimodu aldaketak oso nabarmenak izan daitezke.

Hori dela eta ikerketa gaia hautatzeko orduan, burura etorri zitzaigun euskara erabilpen mailaren gaia. Azkenaldian Soziolinguistika Klusterraren ikerketak egin direla eta, taldekide batzuk bertan parte hartu dugunez, momentu egokia iruditu zaigu hamarnaka herri eta hiriko ikasle gazteen topagune batean (unibertsitatea izan daitekeena adibidez) jatorrizko herri/hiri mailatik kanpo atera eta Euskal Herriko Unibertsitatean, Bizkaiako kanpusaren barne dagoen Gizarte Komunikazio Zientziak fakultatearen barnean zenbateko euskararen erabilera egiten den. Bertan aldagai desberdinei erreparatuz ikerketa honen bitartez, ikusiko dugu non duen ohitura gehiago jendeak euskaraz hitz egiteko adibidez. Horretarako, GKZ fakultate barneko ikasleen euskararen erabilpen maila neurtuko dugu.

## **IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA**

Milaka esparru daude ikerkertzeko, baina guk EHUko GKZko euskara mailaren erabilera ikertzea erabaki dugu. Aukeraketa hau zenbait arrazoiren ondorioa izan da. Hasteko, euskara historian zehar argi itzal asko sufritu ditu eta beharrezkotzat ikusten dugu haren erabilera maila aztertzea hizkuntzaren ibilbidea jarraitzeko. Izan ere, zer pertsona perfil espezifikoa erabiltzen duten jakiteak pisu handia duela hizkuntzaren biziraupenean uste dugu.

Beste alde batetik, egunerokotasunean bizi dugun egoera bat denez jakinmina sortarazten du gudan, hain zuzen zer desberdintasun dauden karrera edade edo herri desberdinetakoak izatea zer nolako eragina duen erabilera mailan, baita fakultateko zer espaziotan erabiltzen den gehien eta zeinetan gutxien.

## MARKO TEORIKOA

Hasteko, ikertuko ditugun objektuak definitu eta ezagutu behar ditugu. Kasu honetan, gure ikerketa Euskara hizkuntzari bideratuko diogu. Erabilera maila GKZ-ko fakultatean dauden denboran zehar zer maiztasunarekin hitz egiten duten euskara bezala definituko dugu.

Euskararen jatorria ezezaguna dugu, edo ez dugu jatorri batekin ere lotzen, frogaturik ez dauden hipotesi anitz dauden arren. Jatorria ez aurkitzearen arrazoi nagusi bat da, euskarak ez duela beste hizkuntza baterekin zerikusirik. Gaztelaniak, esaterako, latinarekin harreman eta zerikusi zuzena duela dakigun bezala, euskararekin zerikusirik duen hizkuntzarik ez da aurkitu gaur egunerarte. Zenbait zientzialarik diote 15.000 urteren zehar mintzatu dela, beste batzuk gehiegizkoa ikusten dute zenbaki hori... Zehatza den ezer ez dugu aurkituko euskararen jatorriari buruz informazioa bilatzean.

Hori dela eta, hizkuntza gutxitua lasai ederrean esan genezake, estatuen babesa jasotzen ez duten hizkuntzak, edo oso babes gutxi lortzen dutenak direla. Horrez gain, estatuko hizkuntza ofizialak ez direnak izan daitezke, edota estatus hori besteren batek jasotzen duelako (EuskoNews, 2004). Era berean, nabarmena da adibidez, Frantzia guk Iparralde bezala ezagutzen dugun lurraldean, hizkuntza ofizial bakarra frantsesa dela, hau da Frantzia hitz egiten diren beste hizkuntza guztiak ez dira ofizialak kontsideratzen. Beraz, euskara, bretoiera edota gaskoiera ez dira hizkuntza ofizial bezala kontuan hartzen Frantzia eta horrek eragiten du hizkuntza gutxituak izatera adibidez.

Beste aldetik, argi eta frogatua dagoena da, Euskal Herriako lurralde ezberdinetan hitz egiten dela euskara. Alegia, Euskal Herria nazio bezala ezagutzen duguna, politikoki Euskadi (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba), Nafarroa eta Iparraldetzat (Frantziaren barne dauden Lapurdi, Zuberoa eta Behe-Nafarroak osaturik) ezagutzen ditugun lurraldeak.

Gaur egun, euskara dialektu ezberdinetan banatzen da; bost dialektu edo euskalkitan<sup>(1)</sup> zehazki, Mendebaldekoa, Erdialdekoa, Nafarra, Nafar-Lapurterra eta Zuberotarra. Euskalki deitzen diogu euskararen dialektu bakoitzari. Euskalkiez gain, Euskaltzaindiak; euskararen akademia ofizialak, 1968an Euskara batua aurkeztu zuen. Hots, euskalki ezberdinak batzen dituen euskara "formala". Ikerketa honetan parte hartzen dugunon ustez, birplanteatu beharreko gaia da euskara batua, baina lagunarteko hizkuntzan euskaldunberritzat ezagutzen den jendeari egokia den euskara iruditzen zaigu. Hala ere, Euskaltzaindia bezalako elkarteek hainbat urte daramate euskara batua hobetzeko edo aldatzeari buruzko


ikerketa eta analisi ugari egiten. Filologo askoren esanetan, euskara batua artifiziala dirudi euskaldun askoren ustean (Zabaleta, 2018).



Iturria: Koldo Zuazo, 1998

Burutzen ari garen ikerketa bezalako adibide asko ditugu. Esaterako, Soziolinguistika klusterra taldeak burutu izaten ditu Euskararen erabilera neurketak<sup>(3)</sup>. Esaterako, 2016ean burutu zuen talde honek kale neurketaren bidezko euskararen erabilerari buruzko ikerketa. Hauek dira urte ezberdinetan neurketak egin ostean lortu zituzten konparazioak, ehunekotan.

### Hizkuntzen erabilera Euskal Herrian



Iturria: guk egina. Datuak: Soziolinguistika Klusterra Txostena

Datu hauen bidez frogatua gelditzen da gaztelania eta frantsesak, euskal lurraldeetan euskararekiko duten hegemonia. Hau dela eta, hizkuntza gutxitutzat hartzen dugu euskara. Eta ikerketaren motibazioetako bat grafiko honek adierazten digu: euskararen egoera kritikoa, urtez urte erabilera gutxitzen doala.

Ikusi dugu azken urteotan, euskararen erabilerak behera egin duela. Baina denboraren lerroan atzera eginez gero, ikus dezakegu euskarak egoera kritikagoak jasan dituela. Sakonago azaltzeko, euskal kultura eta euskal herriaren historia azaltzea ezinbestekoa dugu. Euskal Herria, gaur egun naziotzat ezagutzen dugu, baina duela mende asko herrialde bezala ezagutzen zen. Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Zuberoa, Lapurdi eta Behe-Nafarroak osatzen dute Euskal Herria. Baina 1512.urtean, Espainia Gaztela eta Aragoi bi zatietan banaturik zegoela, gaztelakoek Euskal Herria konkistatu zuten, Nafarroa bera azkena izanda; 1512an, eta Euskal Herriak bere autonomia eta esanahi politikoa galtzen du, beste herrialde baten menpe geratzean.

Hala ere, beste herrialde baten menpe geratu arren, konkistatuko herrialdeztat hartu izan da beti Euskal Herria. Hortaz, foruen bidez aitortu izan zaie konkistaren bidez galdutakoa, autonomia maila txiki batekin. Gerra karlistetan batez ere, foruen gaia sutan egon zen, eta eztabaida luze eta gogorrak izan ziren gerran euskal lurraldeen forueri buruz. Baina foruek aitortu izan dute euskal lurraldeen autonomia hori, beste estatu batzuen menpe egon arren. Foruen baitan eta industrializazioaren garaiaren inguruan sortu ziren mugimendu nazionalistak.

Modu bakun batean azaltzeko, mugimendu nazionalistak dira, nazio baten defentsaren alde borroka egiten duten taldeak. Nazioak, hurrengo ezaugarri hauek jasotzen ditu barne: nazioa herriak osatzen du, eta bere hizkuntza, usadio eta tradizio kulturalak eta baloreak ditu. Kasu honetan, euskal lurraldeetan euskal nazionalismoa hedatu zen euskara hizkuntza, euskal kultura eta Euskal Herria lurralde edo herriaren baitan. Baina urruneko historia atzean utzi eta gertukora gerturatuz, azken hamarkadetan krisi egoera latzak jasan dituzte euskal lurraldeek. Izan ere, duela 80 urte inguru, Francisco Franco diktadoreak Espainia hartu zuen bere esku.

Eta Francoren leloa, "Una, Grande y Libre"\* zelarik, euskal nazionalismoak krisia jasan zuen, hau guztiz debekatu baitzen. Debekatze horren barne, euskararen debekatzea zegoen. Hortaz, Francoren diktadurak iraun zuen bitartean, belaunaldi berriak ezin izan zuen euskarazko hezkuntza bat jaso, ezta euskal kulturaren ezaugarriak ere. Honek, euskara hizkuntzaren gainbeheraren hasiera ekarri zuen, hiztun asko galdu baitziren garai horren ondorioz. Francoren diktadura 1975ean amaitzean, euskara Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofizialtzat baimendu zen euskara, eta garaitik egunerarte iraun du ofizialtasunean. Baina frankismoaren galera guztien ondorioz eta ostean, euskal kulturaren babesa egiteko mugimendu anitz sortu eta antolatu dira, hizkuntza gutxitu eta kultura nahiko ezezagun hau mantentzen saiatzeko. Aurretik emandako adibidea; soziolinguistika klusterra, elkarte txiki bat besterik ez da, euskararen erabilerari buruzko kontzientzia sortzen duena.

Testuinguru historikoa kokaturik, XXI.mendearen egoera aipatu beharra dugu. Hau da, planeta osoaren zehar sistema neoliberalaren hedapenak eragin handia izan du mundu osoko kultura eta gizarteengan, eta globalizazio prozesuak, eragin hauek are gogorragoak egin ditu kaltetuak izan direnentzat. Zehazki, globalizazioak edo kapitalismoak hizkuntza eta kultura hegemonikotzat hartu ditu gaztelera eta ingelera, eta hizkuntza eta kultura gutxituek hauen boterearen kalteak jasan dituzte.

Kultura gutxituen gaur egungo galeren kausetariko bat ondo azaltzen du George Ritzer soziologoak McDonaldizazio ideia bidez. Gizabanakoa sistemaren makina bihurtu dela efizientzia lortzeko. Gizabanakoak makinak bagina bezala gaude kontrolatuak eta gero eta bizitza uniformeagoak ditugu (Ritzer, 1995).


Honen ondorio zuzena dugu AEBren kultura hegemonikoa munduaren zehar hedatzen aritea, beste kultura gutxitu guztiek honen kalteak jasota.

\*Guk euskaratua: Nazio Bakarra, Handia eta Askea



## IKERKETAREN TESTUINGURUA

Ikerketa zehaztu eta testuinguruan ezartzeko, ikerketaren alderdi geografikotik hasiko gara. GKZ fakultatea, EHUren Bizkaiaiko kanpusean kokatzen da. EHU, dakigun moduan, Euskal Herriko Unibertsitatea dugu. Hots, Euskadi mailan dagoen unibertsitate publikoa, 3 kanpus ezberdinetan banatzen dena, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako kanpusetan. Datueri erreparatuz, 2019-20ko datuek<sup>(2)</sup> esaten digute 44.300 ikasle egon zirela urte horretan; gradu, master eta doktoratuak kontuan izanda.




Guk eginiko eskema

Datuak: EHU-ko datu orokorrak

Baina ikasleak, hizkuntzaren arabera banatzen dira, hiru hizkuntzaren arabera: ingelera, euskara eta gaztelania. Gure kasuan, GKZ fakultatean ematen diren bost graduak bereiztuko ditugu hasteko. Alegia, Kazetaritzako Gradua, Ikus Entzunezko Komunikazio gradua, Soziologia gradua, Zientzia Politikoak eta Kudeaketa Publikoaren gradua eta Publizitate eta Harreman Publikoetako gradua. Gero, gradu guzti hauek erdera (euskara ez den hizkuntza; gaztelania eta ingelera kasu honetan) eta euskara hizkuntzetan banatuko ditugu.

Kontuan izan behar dugu ere denboraren aldagaia. 2021. urtean gaudela kontuan izan behar dugu; izan ere euskararen erabilereko datuak ez dira betere onak. Izan ere, euskararen erabilera aldapan behera dihoa 2006.urtearen geroztik (Goikoetxea, 2017). Hortaz, kontuan izan behar dugu euskararen erabilera jaisten ari dela urtez urte, baina ulertu behar dugu ere ikasketa giroan dagoela jendea ikertuko dugun lekuan. Honek, faktore psikologiko-sozial bat sartzen du ikerketan, giro ezberdinetan nolako jarrera eta errola hartzen dugun, baina burutzen ari garen ikerketa kuantitatiboa denez, faktore hau ahaztu egingo dugu.

15. irudia: **Euskararen erabileraren bilakaera, adin-taldean arabera. EUSKAL HERRIA, 1989-2016 (%)**



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

## HELBURUAK

Ikerketa hau egiteari ekin diogunean, gehien hurbilzen zen helburu nagusizat aukeratu dugun helburua hau izan da:

- Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean ikasleen euskararen erabilera maila ezagutu.

Helburu nagusiaren gain, beste azpi-helburu batzuk zehaztu ditugu ikerketan kontuan izan beharrekoak, guk nahi izandako puntuak sakonago osatzen eta aztertzen saiatzeko.

1. Euskara egunerokotasunean erabiltzen dutenen kopurua ezagutu.
2. Gradu ezberdinetako ikasleen euskararen erabilera maila konparatzea eta aztertu.
3. Euskarazko eta gaztelerazko graduen artean dagoen erabileraren ezberdintasuna ebaluatu.
4. Ikasleek klasean eta klasetik kanpo (unibertsitateko beste eremuetan) duten erabilera mailak ezberdinak identifikatu.

## HIPOTESIAK

Hipotesien aldetik, ikerketa lanari ekin aurretik aterako ditugun emaitzen usteak dira, horregatik esan dezakegu helburuen atalarekin harreman estua duela atal honek. Aldi berean, justifikazioaren atalarekin zerikusia izango du ere, izan ere gaiaren aukeraketaren arrazoiak zenbait erantzunen bila eginak daude.

Aurretik esan dugun bezala ikerketa honen helburua gizarte eta komunikazio zientzietako ikasleen euskararen erabilera maila ezagutzea da. Helburu honi eta beste helburuei lotuta hipotesi ezberdinak planteatu ditugu:

Hipotesi nagusia: GKZ-ko fakultate mailan euskara dakitenen portzentaia erabiltzen dutenen gainetik egongo dela. Hori dela eta, azpi-helburuekin lotuta dauden hipotesiak ikusiko ditugu:

H1: Egunerokotasunean euskara erabiltzen dutenak gutxi izango direla, beste hizkuntza batzuetan hitz egin dutelako.

H2: Gradu batzuetan euskara gehiago hitz egingo dela beste batzuetan baino. Adibidez, ADE edo zuzenbidea ikasten dutenen artean gaztelania izan direla hizkuntza

H3: Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, alde nabarmena egongo dela euskaraz eta gaztelaniaz ikasten dutenen artean, nahiz eta gaztelaniako graduetan euskara dakitenen portzentaia izan.

H4: Eremuen garrantziaz jabe izanik, unibertsitateko eremuetan euskara gehien hitz egiten edo entzuten den lekua klaseak direla eta horrek eragina izan dezakeela euskarazko ariketak egotea, testuak edota irakaslearen presentzia.

Hipotesi orokorra: EHUko GKZko euskara mailaren erabilera gauza askorengatik baldintzatua ikus daiteke, baina hala ere euskara dakitenen arteko euskarazko elkarrizketak behar baino eremu eta maiztasun gutxiagorekin ematen direla.

## PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Lehenik eta behin, gure ikerketan erabiliko dugun metodologiari dagokionez, egokiena metodologia kuantitatiboa erabiltzea dela uste dugu, izan ere gure gaia zein den ikusita, gertakari bat neurtu eta kuantifikatu nahi dugu. Hau da, lagin zabal batean; GKZ fakultateko ikasleak neurtu eta ikusi nahi ditugu zenbateko erabilera duen euskarak. Hortaz, datuak zenbakitan erakustea da guri hobekien datorkiguna, gure hipotesiak egiaztatu edo ezeztatzeko. Hau dela eta aukeratu dugu metodologia kuantitatiboa erabiltzea.

Ikerketa teknikei dagokionez, nahiz eta hasiera batean behaketan oinarritutako ikerketa bat proposatu, inkesta edo galdetegi bidez egitea aukeratu dugu aukera egokienetzat. Teknika honek behar ditugun lehen mailako datuak jasotzea lortzen du aurretik bigarren mailako datuak landu ostean. Honen bidez, zuzenean jakin ahalko dugu (errorea beti existitzen den arren) gure aztergaia nahi dugun laginean. Alegia, GKZ fakultateko zenbait ikaslek; aurrerago laginketa zehaztutako kopuruak, inkestari erantzunda jakingo dugu zenbatekoa izango den GKZ fakultatearen barne dagoen euskararen erabilera maila.

Aurretiaz esan bezala, eskuratuko ditugun datuak kuantitatiboak edo zenbagarriak izango dira.

Lanean arituko garen ikertzaileen inguruan, 5 izango gara ikerketa honetaz arduratuko garen kideak. Bostok batera garatuko dugu lan osoa, baita inkestatzailearen lana ere. Denboraren inguruan, 20 bat orduko lana aurreikusten dugu proiektu hau aurrera eramateko orduan.

Diseinu teknikoari dagokionez, lehenik eta behin laginaren aukeraketa zehaztu behar dugu. Populazio mugatu batean arituko gara, EHUko GKZ fakultatearen barne. Hortaz badakigu zenbakitan zein populazioaren gain egingo dugun lan. GKZ fakultatearen barne; bizkaiako kanpusean kokatzen dena, 1985 bat ikasle daudela kalkulatu dugu. Izan ere, datu berririk izan ez arren, 2014ko datuek diote 1985 ikasle inguru zeudela GKZ fakultatean ikasten. Aldi berean, bost gradutan banatu behar ditugu 1985 ikasle horiek, Kazetaritzan 728 ikasle, Publizitate graduan 461, Soziologian 214, Ikus-entzunezko komunikazioan 332 eta azkenik, Zientzia Politikoetan 250 ikasle. Honek, 1985 ikasleko kopurua batzen du. 1985 ikasle horietatik, gainera, emakumezkoak dira 1126, eta beste 859 ikasleak, gizonak (EHU, 2014). Populazio mugatua dela jakinda, laginaren tamaina definitzea geratzen zaigu.

Laginaren tamaina definitzeko, kalkulu zehatz batzuk eraman behar izan ditugu aurrera. Horretarako, hurrengo datuetan oinarrituko gara. GKZ fakultatean 1985 bat ikasle dira. Konfiantza maila %95koa jarriko dugu; estatistikoki datu onargarriak izan daitezen, eta errorea ahalik eta txikiena izan dadin; populazio osora gehien gerturatzen saiatzeko, %5ekoa. Hortaz, datuak sarturik, jasotzen dugun ikasle kopurua 322koa da. Zenbaki hau, hurrengo atalean joango gara zehazten zein azpi-talde edo aldagaien arabera sailkatuko ditugun, hasierako helburuak kontuan hartuz hipotesiak frogatzeko.

Tamaina zehaztuta, gure ikerketa aurrera eramateko ausazko lagina egingo dugu, eta zehazki geruzatu proportzionala. Hau aukeratuko dugu, graduka banatzen baitugu laginketa. Hau da, GKZ fakultateko gradu ezberdinetako populazioa aukeratu behar dugu, horretarako

era proportzionalean aukeratuko ditugu ikasleak, proportzioan lagina populazioara ahalik eta gehien gerturatu dadin estatistikoki. Hau aukeratuko dugu, helburuen barne aipatzen den bezala erkatu nahi ditugulako gradu arteko ezberdintasunak, beste zenbait aldagaiekin egingo dugun bezala. Horretarako, uste dugu inkesta betetzeko ausazko lagin geruzatu proportzionala egokiena dela gure ezaugarriekin bat egiteko. Honekin batera, %95eko konfiantza maila aukeratu dugu, gehiago izanez gero lagina handiegia izango zelako, eta gutxiago izanez gero konfiantza baxuegia izango genuelako. Hori dela eta, %95ekoa aukeratu dugu; tarteko puntu bat, populazioaren errealitatea ahalik eta hoberen aurkezteko gure laginaren barne. Konfiantza mailarekin gertatzen ez den moduan, errorea ahalik eta baxuena lortzen saiatu gara. Hortaz, gomendatutako %5eko errorearekin geratu gara. Izan ere, ez zaigu gehiegizko errorea iruditzen, eta errore gutxiago lortzeko laginaren tamaina gehiegizkoa izan beharko litzateke. Aurreko faktore guzti hauek kontuan izanda, 322 ikaslerekin egingo dugu lan gure lana aurrera eramateko.

Lagina hobe ulertzeko honako taula hau:

GRADUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	LAGINERAKO EMAKUMEAK	LAGINERAKO GIZONAK	LAGINA GUZTIRA
Kazetaritza	409	319	66	51	117
Zientzia Politikoak	93	157	15	26	41
Soziologia	107	107	18	17	35
Publizitatea	321	140	52	23	75
Ikus-entzun komunikazioa	196	136	32	22	54
GUZTIRA	1126	859	183	139	322

Taula honetan kalkulatu dugu zenbat ikasle behar ditugun lagin bakoitzeko, eta genero sailkaketarekin, lagina populazioari proportzionala izateko.

## ALDAGAIEN ZERRENDATZEA ETA OPERAZIONALIZAZIOA

Gure ikerketa aurrera eramateko egunerokotasunaren kontzeptua oso garrantzitsua da, izan ere hizkuntza baten erabilera aztertzen dugunean kontuan hartu behar dugu momenturo erabiltzen dugun tresna bat dela, horregatik bi aspektutan nehurtuko dugu. Alde batetik pertsonak egunean zenbatetan hitz egiten duen jakin behar da eta beste aldetik, hitz egiten duen bakoitzean euskaraz edo beste hizkuntza batean egiten duen jakin behar dugu.

<b>Aldagaia</b>	<b>Aldagai mota</b>	<b>Kategoriak</b>
Gradu ezberdinak GKZtan	Kategoriko nominala	-Kazetaritza -Zientzia politikoak -Soziologia -Ikusentzun -Publi. eta harremanak
Egunean zehar zenbatetan hitz egiten duzu euskaraz	Numerikoa Diskretua	-Beti -Gehienetan -Batzutan -Ia inoiz -Inoiz ez
GKZ-ko eremuak	Kategoriko nominala	-Kafetegia -Pitilekua -Gudari plaza -Korridoreak -Klaseak -Komunak
Klaseak jasotzen duzun hizkuntza	Kategoriko nominala	-Gazteleraz -Euskaraz

## KALE LANAREN NONDIK NORAKOAK

Lehen aipatu bezala, gure ikerketa EHUko GKZ-ko fakultatean izango denez, datuak biltzerako orduan ez gara asko urrundu beharrik ere. Era berean, lehenengo mailako datu hauek graduaren arabera proportzionalki hartuko ditugu eta noski, generoak desberdinduz. Hori dela eta, datu objektiboak ahalik eta gehien biltzea baita gure helburua, inkesta/galdetegi berdinak banatuko ditugu behar ditugun 322 ikasleei.

Lehen egin dugun taulan argi ageri den bezala, hau da hartuko dugun lagina, EHUko GKZ-ko gradu desberdinetako ikasleak generoetan desberdinduz.

GRADUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	LAGINERAKO EMAKUMEAK	LAGINERAKO GIZONAK	LAGINA GUZTIRA
Kazetaritza	409	319	66	51	117
Zientzia Politikoak	93	157	15	26	41
Soziologia	107	107	18	17	35
Publizitatea	321	140	52	23	75
Ikus-entzun komunikazioa	196	136	32	22	54
GUZTIRA	1126	859	183	139	322

Zenbat ikaslek egingo duten inkesta/galdetegia kontuan hartuta, orain ikerlanarentzat nola hartuko ditugun kontaktuan edota inkesta/galdetegiak noiz eta non egingo diren zehaztuko dugu. Horrez gain, datuak nola erregistratu eta nola gordeko ditugun aipatuko dugu. Hau esanda, guk aukeratutako metodoa fakultatetik graduz gradu joatea izango da eta generoa desberdinduz ere, galdetegia urte ezberdinetako pertsonak bete dezaten ziurtatuko gara (klasez klase joanez). Aldi berean, gu bostok klaseka ate joka ibiliko garenez, galdetegiak klase orduan banatuko ditugu eta gero beraiek, berehala galdetegia egin ahal denez, hurrengo klaserako berriro pasatuko gara inkestak biltzeko helburuarekin.

Beste aldetik, lortutako datuak Drive galdetegietara pasako ditugu. Askok pentsa dezakete errezago WhatsApp bat bitartez izango zela galdetegia bidaltzea eta, baina gure helburua klase desberdin eta adin desberdinetako kopuru zehatz bat izan behar denez, datuak klasez klase biltzea askoz ere fidagarriagoa dela iduritzen zaigu. Beraz, datuak Drive-ra pasako ditugu eta Drive bertan gordeko ditugu.

## **GALDETEGIAREN ERANSKINA**

Galdetegi honen bitartez Euskal Herriko Unibertsitateko euskararen erabilera maila neurtzea dugu helburu, izan ere, jakina da nahiz eta hizkuntza ofiziala izan, hau ez dela unibertsalki hitz egiten lurraldean. Testuinguru hortatik abiatuz, oso interesgarria da guretzat gure inguruko esparru zehatz batean (ikasten dugun GKZ fakultatean) honen erabilera zenbatekoa den eta duen presentzia jakitea.

Hori dela eta asko eskertuko genizuke, GKZ-ko ikasle agurgarri, zintzotasun osoz galdera labur hauek erantzutea, hauei esker gure ikerketa aurrera eraman ahal izango bai dugu eta horrela fakultateko euskararen egoera erreala ezagutu. Dena den, uste dugu euskararen egoera interes orokorreko auzia dela, gure egunerokotasunean agertzen bai da.

1. Adina:
2. Sexua:
3. Bizilekua:
4. Gradua:
5. Graduaren hizkuntza:
6. Baloratu euskararen egoera zure inguruan (jatorrizko herri/hirian):
7. Baloratu euskararen egoera zure inguruan (unibertsitatean):
8. Kuantifikatu 0 tik 10 erainoko eskalan zure euskararen erabilera maila klasean:
9. Kuantifikatu 0 tik 10 erainoko eskalan zure euskararen erabilera maila klasetik kanpo (unibertsitate barruan):
10. Kuantifikatu 0 tik 10 erainoko eskalan zure euskararen erabilera maila unibertsitateko langile zein irakasleekin erlazionatzen zaren orduan:
11. Kuantifikatu 0 tik 10 erainoko eskalan zure euskararen erabilera maila fakultateko ekintzetan parte hartze duzunean<sup>o</sup>:
12. Kuantifikatu 0 tik 10 erainoko eskalan zure euskararen erabilera maila unibertsitateetik kanpo (bizitza pertsonalean):
  - Kontutan izanik 0 bat inoiz ez izango litzatekela eta 10 bat beti.



## BIBLIOGRAFIA

1: Euskalkiak: <http://euskalkiak.eus/>

2: EHUko ikasleen datuak: <https://www.ehu.es/es/web/gardentasun-ataria/datu-orokorrak>

3. Soziolinguistika klusterraren web orria: <https://soziolinguistika.eus/eu/>

- Garazi Zabaleta, (2018) Argian, *Herriko hizkeratik gertuen dagoen euskara batuaren bila*: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2598/sakanako-batua-ikasten>
- Garikoitz Goikoetxea, (2017) Berria, *Euskararen erabilera jaitsi egin da kalean*: <https://www.berria.eus/albisteak/136816/euskararen-erabilera-jaitsi-egin-da-kalean.htm>
- Euskonews, Europako hizkuntza gutxituak: datu orokor batzuk <https://www.euskonews.eus/0243zbn/gaia24303eu.html>
- George Ritzer, (1995) *The "Macdonaldization" of society*.  
- <https://web.ics.purdue.edu/~kstainba/McDonaldization%20of%20Society%201983.pdf>
- EHU, (2014) *Alumnado matriculado por centro universitario*.  
<http://www.ehu.es/zenbakitan/es/node/29.html>